

2023/24 ikasturtean Euskal AEko ikastetxe publikoetako 0 eta urte 1eko geletako matrikulen kopurua % 27 hazi zen

Lehen Hezkuntzak 10.000 ikasle galdu ditu bost urtean

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza arautuetan guztira 405.616 matrikula egin ziren 2023/24 ikasturtean Euskal AEn, aurreko ikasturteko kopuruaren oso antzekoa.

Hala ere, bilakaera desberdina izan zen hezkuntza-mailaren arabera. Lehen Hezkuntzan aurreko urtean baino 2.612 matrikula gutxiago egin ziren, hau da, % 2,1 gutxiago. Horrekin, bost urteko jaitsiera kateatu eta 10.000 ikasle inguru galdu ziren. Bestalde, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak eta Lanbide Heziketak azken hogeitako matrikula-kopuru altuenak izan dituzte: 90.000 eta 46.000 inskripzio baino gehiago, hurrenez hurren.

Oro har, Araubide Bereziko Irakaskuntzek aldaketa handirik gabe jarraitu zuten, eta % 1,1eko igoera orokorra Kirolaren Irakaskuntzen errekonferazioaren ondorioz gertatu zen; 2022/23 ikasturtean baldutako 300 ikasle baino gehiago irabazita.

Unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak Euskal AEn, irakaskuntza mailaren arabera, zentroaren titulartasunari jarraiki. 2023/24

	Guztira	Publikoa	Pribatua	Aldaketa, aurreko ikasturtearen aldean (%)
GUZTIRA	405.616	227.751	177.865	0.0
Araubide orokorreko irakaskuntzak	377.088	200.389	176.699	-0.0
Haur-Hezkuntza	73.031	39.894	33.137	-1.0
Lehen Hezkuntza	121.539	63.289	58.250	-2.1
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	90.335	43.011	47.324	1.6
Oinarritzko lanbide heziketa	5.283	1.601	3.682	7.7
Batzilergoa	32.575	15.599	16.976	0.3
Erdimailako lanbide-heziketa	16.305	10.284	6.021	1.7
Erdi-mailako LHko espezializazio-ikastaroak	39	25	14	-33.9
Goimailako lanbide-heziketa	24.669	14.428	10.241	4.1
Goi-mailako LHko espezializazio-ikastaroak	434	301	133	70.9
Hezkuntza Berezia	1.779	1.008	771	5.5
Helduen Hezkuntza	11.099	10.949	150	-2.0
Araubide bereziko irakaskuntzak	28.528	27.362	1.166	1.1
Hizkuntzen irakaskuntzak	23.763	23.763	-	-0.3
Musika arte-irakaskuntzak	2.452	1.808	644	-3.4
Dantza arte-irakaskuntzak	160	160	-	15.9
Arte plastikoaren eta diseinuaren irakaskuntzak	875	582	293	9.5
Kirol irakaskuntzak	1.218	989	229	46.9
Arte dramatikoa irakaskuntza artistikoak	60	60	-	-4.8

Data 2025eko Marboaren 24a


Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

0 eta urte 1eko matrikulak izugarri igo dira ikastetxe publikoetan

Haur Hezkuntzako datuak zehatzago aztertu behar dira. Oro har, hezkuntza-etapa honetan % 1 murriztu zen matrikulazioa, baina 0 eta urte 1eko geletako izen-emateak % 13 igo ziren. Hala ere, alde handiak egon ziren sare publikoaren eta pribatuaren artean.

2023/24 ikasturtean haur-eskola publikoen doakotasuna indarrean jartzeak eskaera nabarmen handitzea eragin zuen. Zehazki, ikastetxe publikoetako 0 urteko haurren matrikulak % 57 igo ziren aurreko ikasturtearen aldean, 1.111tik 1.746ra. Urte 1eko ikasgeletan % 20 inguruko hazkundera izan zen.

Bestalde, zentro pribatuetan ere 0 urteko matrikulek gora egin zuten, baina apalago; 2022/23 ikasturtean baino 100 inskripzio gehiago baino ez ziren erregistratu. Urtebeteko ikasleei dagokienez, sare pribatuko eskoletako matrikulak % 7 jaitsi ziren.




Parekotasuna Zientzia eta teknologiako Batxilergoan

2023/24 ikasturtean guztiz ezarri zen Batxilergoaren antolamendua ezartzen duen 243/2022 Errege Dekretua. Besteak beste, arau horrek Batxilergoa egiteko modalitateak aldatu zituen, eta horren berritasun nagusia Modalitate Orokorra sortzea izan zen. Modalitate berri hori prestakuntza globalagoa eta malguagoa bilatzen dutenentzat pentsatuta dago, hainbat modalitatetako ikasgaiak aukeratuz, askotariko prestakuntza-ibilbideak konfiguratzeko aukera emanez.

Oraingoz, modalitate berri horrek ez du harrera handirik izan Euskal AEn: 451 ikaslek soilik aukeratu zuen, guztizkoaren % 1,4k. Aldiz, Zientzien eta teknologiaren modalitateak Batxilergoko ikasleen erdia baino gehiago erakarri zuen.

Euskal AEko Batxilergoan matrikulatutako ikasleen banaketa, modalitatearen arabera



Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

Batzilergoko modalitatea aukeratzeko, neskek eta mutilek desberdin jokatu zuten. Gizonen % 62k Zientzien eta teknologien adarra aukeratu zuen, neskek baino ehuneko hamaika puntu gehiago (% 51). Aldiz, Humanitateetan eta Gizarte Zientzietan prestakuntza jaso zuten emakumeen proportzioa (% 42) gizonena (% 34) baino zortzi puntu handiagoa izan zen. Bide artistikoa aukeratu zutenak gutxiengoa izan ziren bi sexuetan, baina bide artistikoa aukeratu zuten emakumeen ehuneko (% 6) gizonena halako hiru izan zen. Zifra absolutuetan, horrek desoreka handia eragin zuen ikasgeletan: modalitate horretan, hamar ikasletik zortzi emakumeak izan ziren. Azkenik, Batxilergo Orokorra gizonen % 2k eta emakumeen % 1ek soilik aukeratu zuen.

2023/24 ikasturtean 41.447 pertsona matrikulatu ziren erdi-mailako edo goi-mailako Lanbide Heziketan, espezializazio-ikastaroak barne; 2022/23 ikasturtean baino 1.400 gehiago. Osasunaren lanbide-arloko zikloak izan ziren gehien eskatu zirenak, 5.129 inskripzio guztira. Horietatik guztietatik lautik bat baino ez zuen egin gizon batek. Fabrikazio mekanikoaren, Elektrizitatea eta elektronikaren, eta Informatika eta komunikazioen arloek osatu zuten matrikula gehien izan zituzten lanbide-arloen rankinga; horietan guztietan emakumeak % 15 baino gutxiago izan ziren.

Lehen hezkuntzako lau ikasletik hiruk eskolako jantokia erabili zuen

178.000 ikaslek baino gehiagok erabili zuen eskola-jantokia, Araubide Orokorreko Irakaskuntzetan matrikulatutako ikasle guztien ia erdiak. Bizkaikoak izan zen zerbitzu hori gehien erabili zuten ikasleak: % 56k baino gehiagok ikastetxean bazkaldu zuen, Gipuzkoan % 41ek eta Araban % 34k.

Lehen Hezkuntzan izan zen eskola-jantokiko eskari handiena, hezkuntza-etapa horretan matrikulatutako lau pertsonatik hiruk beren ikastetxean bazkaldu zuen. Aitzitik, Lanbide Heziketan ia ez zen erabili zerbitzua.

Oharra: oraingoz ez dago bekei buruzko informaziorik, ez eta atzerriko hizkuntzak irakaskuntza-hizkuntza gisa erabiltzeari buruzkorik ere. Espero dugu informazio hori laster zabaldu ahal izatea.

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel: 945 01 75 62